


Denbora-



1 Labirintoa

Anek txorizo ogitartekoa jan nahi du askaltzeko. Ogia eta txorizoa, ordea, labirintoaren alde banatan daude. Esaiozu zein bide egin behar duen ogitartekoa osatzeko!

2 Hitzekin jolasean



Ezkerraldean hitz zerrenda bat jarri dizugu. Eskuineko zerrendan hitz berberak daude, baina hizkiak nahasirik. Antzematen al diozu ezkerreko hitz bakoitza eskuineko zerrendan non dagoen?

- | | |
|----------------|----------------|
| 1) GOZOGILE | a) IRANREBAT |
| 2) TABERNARI | b) IRALSEMA |
| 3) BILBOTAR | c) ELIGOZOG |
| 4) TXORIMALO | d) NIAZTLADU |
| 5) ETXEBIZITZA | e) OLAMIROXT |
| 6) UDALTZATN | f) AZTIZIBEXTE |
| 7) AMESLARI | g) RATOBLIB |

3 Kopiatu laukiz lauki

Ikusten jeginuak zein lanpara magiko polita duen?

Saiatu zaitetz laukiz lauki zeu ere horrelakoxe bat marrazten!




- pasak

4 Sarrailak


Naroaren etxera sartzeko, bi ate ireki behar dira, baina sarrailek berdin-berdinak dituzte.

Asmatu al duzu honezkero bost sarraila hauetatik zein diren berdin-berdinak?



5 Irudiak ordenatu


Udazkena iritsi da, eta lore hau, pixkanaka, zimeldu egin da. Irudiak ordena egokian jarri eta nola zimeldu den ikusiko duzu!



Erantzunak: 2.-1-c, 2.-a, 3.-g, 4.-e, 5.-f, 6.-d, 7.-b, 4.-c eta d. 5.-2-5-6-4-3-1.

Zizarea

Zure lagunekin taldean jostatzeko ariketa bat proposatuko dizugu. Hori bai, besoetan indar handia izan beharko duzue!



1. Guztiok lurrian eseri behar duzue, ilara bat osatuz eta hankak zabaldu. Zuk ilaran atzean duzunaren hanken artean sartu behar duzu. Zure aurrean dagoena, berriz, zure hanken artean eseriko da. Ahalik eta estuena jarri, ilara trinkoa osatu behar da eta!
2. Ondoren, zuetariko bakoitzak aurrekoaren gerriaren inguruan gurutzatu behar ditu hankak. Ondo heldu, ez utzi ihes egiten!
3. Horrela zaudetela, denok batera bulkada egin eta bira hartu behar duzue. Hala, eskuak lurrian jarrita, besoekin eutsi beharko diozue; hankak bestearen gerriari tinko helduta izan behar dituzue! Ilarako azkenak, aldiz, eskuak eta hankak izango ditu lurrian!
4. Has zaitezkete jada zizareak bezala narrasean! Erabili eskuak pixkanaka-pixkanaka aurrera egiteko!